

EUSKERA SENCILLOAREN MANIFIESTOA

(1) *Musika (ambiente) “Euixa najak”. Kanta osoa.*

Ondoren offeko abots bat entzuten da:

Off.

“Din don!! Euskaltzaindiak ohartarazten dizue ikuskizun honen kontsumoa kaltegarria suerta daitekeela zuen euskeraren osasunerako.”

Mikel eta Patxo sartzen dira. Mikel muletekin. Patxo gurpildun aulkiarekin.

Mikel.

Kasurik ez!!

Patxo.

Idea pitorik ez dute horiek!

Mikel.

Gabon. Hasi baino lehen milesker gure erreibindikazioa aldarrikatzeko aukera eman diguzuelako zuen herriaren areto honetan.

Patxo.

Ala, lehenengoa bekokian! Eske... eske, zara esnea, eh? Zara esnea. Herriaren esan duzu. “Herriko” esaten da. “Herriko aretoan”. Baina ze euskaltegian ikasi zenuen zuk?

Mikel.

Nik? Azkuen.

Patxo.

Ja! Azkue! Orain ulertzen dut.

Mikel.

“Ulertzen dut...” zu bai zarela esnea. Zara esne gaingabetua. **Ulertzen** dut esaten . TZ-rekin. “Tzen”. Baina zuk ze euskaltegian ikasi zenuen?

Patxo.

Nik Lizardin. “*Oi lizardi, lizardi lizardi...*” (Euskalategi “bufanda” aidean astinduz.)

Mikel.

“Resu-rreccion-maria-de azkué.” (Berdin)

Mikel.

Barkatu. Esaten ari ginenez... milesker herri honi, *non gure manifestoarean irakurketari ekingo baitiogu*. Irentsi zazu hori.

Patxo.

Egon zaitez loroari: “*Gaizki esanak gogoan hartu eta ondo esanak barkatu*” Ez, itxaron... “*Gaizki gogoak, esanak hartu eta ondo barkatu...*” “*Ondo gogoak barkatu hartu...*” Kaka, ez dago zure izeko.

Mikel.

(Ortz artean kantatuz) “*Lizardi... Rimbaud etorri da...*”

Patxo.

Zera... “Euskera Senzilloaren manifestoa” aurkeztuko dugula eta kitto.

Mikel.

Hala da. Eta gu bagara nor horretaz hitz egiteko. Esperientziarik ez zaigu falta gero.

Patxo.

Bai. Hain zuzen ere, ni munduko euskaldunberririk zaharrena naiz.

Mikel.

Barkatu, baina neu naiz munduko euskaldunberririk zaharrena.

Patxo.

Ni ikasten hasi nintzenean Garzon epailea oraindik abokatu progrea zen. Eta ez zegoen ordenadorerik.

Mikel.

Ni hasi nintzenean ez zegoen ezta boligraforik ere, eta luma eta tinteroarekin idazten genuen.

Patxo.

Guk pergaminoetan.

Mikel.

Guk papiroetan.

Patxo.

Guk harrietan, zintzelarekin.

Mikel.

Guk kobazuloetako hormetan pintatzen genuen. “*Ni Neandertal naiz. Zu Cromagnon zara. Hau bisontea da...*”

Patxo.

Ni Jurasikoan hasi nintzen, eta euskera oraindik inbentatu gabe zegoen. Bi ikasle ginen. Diplodokus bat eta ni, eta irakasleari Homo erectus esaten genion.

Mikel.

Bale. Errenditzen naiz.

Patxo.

Urteak pasa dira, ezta?

Mikel.

Glaziazioak!

Patxo.

Zenbat kurtso! Zenbat mintzapraktika! Zenbat poteo euskaldun... Zenbat zirrosi hepatiko...

Mikel negarrez hasten da.

Patxo.

Hepatiko ez? Hepatiren...? Hepatitik...?

Patxo.

Ez, ez da hori... zera... hori guztia esatean pentsatzen hasi naiz gaurtik aurrera ja ez dudala izango ez klaserik, ez mintzapraktikarik ez poteo euskaldunik eta...

Patxo.

Triste zaude?

Mikel.

Bai zera! Pozez zorutzen. Azkenean libre sentitzen naiz. Euskalduna, bai, baina batez ere libre. Ze bale, euskalduntzea ondo dago... eta abar... Oso ondo... Puta madre. Eta kalte kolateralak?

Patxo.

Hori da. Hitz dezagun kalte kolateralei buruz.

Mikel.

Bigarren maila. (Boxeo keinuak egiten) *“Ematen dizut. Ematen diegu. Ematen digute. Ematen dit, ematen didak, ematen didazu, ematen didate...”* Tabike nasalaren desbideraketa.

Patxo.

Seigarren maila. *“Erori natzaik, erori natzaio, erori natzaizu, erori natzaizue, erori natzaie”*. Azkenean irakaslea gainera *“erori zitzaidan”*.

Mikel.

Hamaikagarren maila: *“banatorkik-banatorbio, banoakizu, banoakizue”*. Hainbeste *“joan”* eta *“etorriekin”* meniskoa zisko eginda.

Patxo.

Hobekuntza: *“Naramak, narama, naramazu, naramazue, naramate.”* Paraplejia. Ordurtik *“eraman”* egin behar naute.

Mikel.

Mintza praktika: *“Jan nezakeen. Ezin zenezake bazkaldu. Gosal zezakeen. Ezin afal genezakeen.”* Anorexia.

Patxo.

EGA. *“Nakusak., nakusa, nakusazu, nakusate...”*

Mikel.

Neurosi paranoikoa.

Patxo.

(Urduri) *“Narabilkik, narabil, narabilzu, narabilzue, narabilte...”*

Mikel.

Lasai, Patxo. Kontrola zaitetz!!

Patxo.

Ezin dut, kontrolatzen naute, erabiltzen gaituzte...

Mikel.

Mesedez, ba al dago sikiatrarik aretoan? Norbaitek lagun diezagula, arren!

(2) Urkoren kanta entzuten da: “Guk euskaraz, zuk zergatik ez”

Mikel.

Eskerrik asko.

Kantatu egiten dute, txiskeroak pizturik . Korteak bukatzean, Mikel dardarka hasten da.

Patxo.

Zer duzu?

Mikel.

Tximinoa daukat.Ordu erdia daramat baldintza ziztrin bat ere bota gabe.

Patxo.

Ba bota, lasai, lagunartean gaude eta!

Mikel.

“Guk zuek ikusiko bazintuztegu... zuek gu agurtuko gin... ”Ai ama... “Gin...” Ez esan, eh? Gindilla? Itxoin... (Liburu bat ateratzen du)

Patxo.

Euskal Gramatika? Hori ez da arriskutsua?

Mikel.

Kea. Gramatika putamadre dago, kontrolatzen baduzu.

Mikel.

(Oso urduri) Subjuntiboa, Inperatiboa, Potentzialak, hemen baldintzak!

Esnifatu egiten du.

Mikel.

(Lasaiago) Gintuzkezue. “Zuek gu agurtuko gintuzkezue.”

Patxo.

Jode... Gramatika ona, eh?

Mikel.

Kortatu gabea.

Patxo.

Pasa pixkat...

Mikel.

Ez... Gramatika arriskutsua da kontrolatzen ez baduzu.

Patxo.

Ibili aditza besterik ez... Hemen... Ni nabil!... (Hi habil, bera dabil...)

(4) “Carros de fuego”-ren musikarekin aulkitik altzatu eta ibiltzen hasten da. Muletak eta aulkia bazterrean utzi eta zutitu egiten dira.

Mikel.

Ondo gabilta orain, eh?

Patxo.

Bai, baina zertan genbiltzan?

Mikel.

Hara... Ahaztu egin zait.

Patxo.

Hau da hau! Zuk badakizu zein den euskera ikasteak dakarren kalte kolateralik larriena?

Mikel.

Ba jakin izan dut, eh?, baina jada ez naiz gogoratzen.

Patxo.

Memoria galtzen duzula. Buruan nor nori, nor nori nork eta nor bork aditz guztiak sartzeko, buruan daukazun guztia ater behar duzu...

Mikel.

Bai. Memoria galtzen duzu.

Patxo.

Zigarrotxo bat nahi?

Mikel.

Ez, eskerrik asko.

Patxo.

Zigarrotxo bat nahi?

Mikel.

Ez, eskerrik asko.

Patxo.

Zigarrotxo bat nahi?

Mikel.

Ez, eskerrik asko.

Patxo.

Zigarrotxo bat nahi?

Mikel.

Ez, eskerrik asko.

Patxo.

Tilala, tilala... (...) Zigarrotxo bat nahi?

Mikel.

Ez, eskerrik asko.

Patxo.

Baina zertan ari zara? Ez dut inoiz horrelako musturrik ikusi. Zer nahi duzu, ba, pakete osoa ematea?

Mikel.

Baina zer duzu? Zertaz ari zara?

Patxo.

Dena den ondo gelditzen zaizu ahoan duzun abaniko hori. Oso kitx geratzen zaizu.

Mikel.

Nola abaniko bat? Ah, egia da! Nork ipini dit guzti hau ahoan?

Patxo.

Zuk zeuk.

Mikel.

Konturatu ere ez naiz egin. Izugarrizko despistea daukat euskaltegian sartu nintzenetik. Dena den, ez zenuen zertan bost zigarro eskini behar batera.

Patxo.

Ba begira, ez dut pentsatu egiten ari nintzena, oso despistaturik nago aspaldi honetan. Euskera ikasten hasi nintzenetik tabakoa non dudan ere ez dakit. Horregatik erretzeari utzi diot.

Mikel.

Zorionak! Hau ospatu beharra dago, tori zigarro bat.

Patxo.

Ez, erretzeari utzi diot.

Mikel.

Ez da izango, zorionak!!

Patxo.

Emaidazu sua.

Mikel.

Ez, surik ez daukat. (Metxeroa atera eta sua ematen dio) Erretzeari utzi diot. Euskaltegian ezin genuen erre eta...

Patxo.

Koño! Zorionak!

Mikel.

Eskerrik asko.

Erretzen dute. Mikel dardarka hasten da.

Patxo.

Zer duzu?

Mikel.

Tximinoa berriro.

Patxo.

Tori zigarro bat.

Mikel.

Ez, droga gogorragoa behar dut: subjuntibo nor nori nork bat.

Patxo.

Kontuz, motel, hori sobredosia da.

Mikel.

“Tabakoa eros diezazudan eskatu zeniezadake”. Uahhhh!!

Mikel txutearen ondorengo nirvanan erortzen da.

Patxo.

Jode... Tristeia zurea... Dena den, ez da zure errua... Jakina... gazterik hasten zara tonto tonto ikasten, inkonzienteki...

Mikel.

Ez dizute informazio egokia ematen. Ai... zergatik hasiko nintzen!!

Patxo.

Oso galdera ona. Zu zergatik hasi zinen euskera ikasten?

Mikel.

Nik? Ba... Ba zergatik izango zen... Ejem... Euskera oso...zera... Kontzientzia nazionala... eh... esan nahi dut nire herriaren hizkuntza... ba...

Patxo.

Ligatzeagatik...

Mikel.

Bai! Ligatzeagatik. Propagandarekin engainatu ninduten. “Ligatu nahi baduzu, zatoz AEKra” “AEK, XX. Mendeko Sodoma eta Gomorra” A ze timoa!

Patxo.

Ez zenuen ligatu inoiz ez?

Mikel.

Bai. Behin. Nafarroa Oinezen. Sara zuen izena.. Hasieran ondo. Patxarana edan genuen, eta patxarana euskeraz edateko arazorik ez. Dantzan ere ondo. (Dantza eginez) Baina hitz egiteko, komeriak: “Aizu, Sara... Gustatzen... Ehhh Zera... Zu niri... gustatzen... Zu niri... *Itxaron segundo bat...*” Nire irakaslearen bila joan nintzen. “Ander! Ander!!” Azkenean aurkitu nuen, hamaseigarren kalimotxoa eskuan zuela. Xaflada pare bat eman eta solapetatik heldu nion: “Ander, Ander zu niri gustatzen...??” Eta berak... “Zu niri ere, *laztana...*” Eta musu tornillo bat eman zidan. Eta beno, horrela gertatu zen.

Patxo.

(Barrez) Pringao!

Mikel.

Ea bada, Askodaki jauna, esan nola ligatzen den euskeraz, hain listoa bazara.

Patxo.

Segun non zauden. Esatebaterako, Bizkaian, “Hola, selan saos? Basatos nigas potxola.”

Mikel.

(Errepikatuz) “Hola selan saos, basatos nigas potxola”

Patxo.

Eta potxola sugas doanean, hasten zara tarareatzen “tralarala tralarala...”

Mikel.

Ah, bai, “Emostasuz musutxuek...”

Patxo.

Tarareatu bakarrik, txotxolo, bestela plumeroa ikusten zaizu. Horrela, disimuloan. “Tralalala tralarala...”

Patxo.

Gohierrin beste estiloa dute. Eskuak poltsikoan, palillo bat ortzartean, eta... “*Hi, ze, eingo al diñau ala zer?*” Neskak “Ala zer” erantzuten badu, seinale txarra.

Mikel.

Eske zara esnea, eh?

Patxo.

Zuberoan lirikoagoak dira. (Doinu “zuberotarrak”) “*Oi lili xagmangarria, bhortüko basaoilarra, Altzürükükü loria... Eperrak baditüzü bere bi hegalak eta zurekila nahi dut TXORTAN EGIN.*” Azkeneko hau garbi esan, ondo ulertu dadin.

Mikel.

Jode, eske zara...

Patxo.

Araban berriz, oso zaila da ligatzea. Jendeak ez dio elkarri entenditzen.

Mikel.

Jakina. Denek hitz egiten dute “alavés”.

Patxo.

Eta Nafarroan ligatzen baduzu, aholku bat, ez hartu kotxea, ze zu bazoaz zure ligearekin, euskeraz hitz egiten. Bapatean kartel bat: “Atención, zona no vascófona”

Erderara pasatu behar duzu. Gero hurrengo herrian, zas! . “Hadi, inguru euskalduna” Ala, berriro euskeraz. Eta horrela klimax ba pikutara doa.

Mikel.

Eske zara... Askotan ligatu duzu zuk euskeraz?

Patxo.

Nik? Buah! Buah!!! Buaahhh!! Kontua galduta daukat... Esango dizut... (Hatzamarrekin kontatzen hasten da) Gutxi gora behera... Behin... edo behin ere ez, orain ez naiz ondo gogoratzen.

Mikel.

Eta erderaz, zer, morao ezta?.

Patxo.

Erderaz? Keba! Ezta roske bat ere. Horregatik sartu nintzen AEKAn. Propagandarekin engainatu ninduten: “AEK, euskera, frantsesa, griegoa. Diskrezio osoa. Bisa onartzen da.” A ze timoa!!! Beitu, ze moskeoa dudan AEKrekin.

Mikel.

Bai, AEKAn ikastea gogorra da. Baina are gogorragoa da gero kalera irten eta praktikatzen hastea. “Zoaz kalera, esaten dizute, eta hits egin euskaldunekin...” Bai jauna, oraintxe bertan gainera. Zoaz zu erridikuloa egitera, no te jode.

Patxo.

Esatebaterako, hirugarren mailan zaude, eta lehedabiziko aldiz taberna batean edariak euskeraz eskatzera atrebitzen zara. Barrara hurbildu, txistua irentsi eta esaten duzu “Bi surito eta ur edalonchi bat”. Eta tabernariak,

Mikel.

Ahora te pongo, salao.

Patxo.

Gauzak jaso, ordaindu eta burumakur bueltatzen zara lagunen artera, pentsatzen “Baina nola arraio jakin du euskaldun berria naizela? Laugarren mailan z eta tz-ren ahozkapena lantzen duzu eta orduan tabernara bueltatzen zara. “Bi zurito eta ur edalontzi bat” Eta tabernariak...

Mikel.

Ahora te pongo, salao.

Patxo.

Bosgarren mailan zera ikasten duzu ez dela “ur edalontzi bat” esaten, baizik “edalontzi bete ur” eta tabernara zoaz. “Bi zurito eta **edalontzi bete ur**”.

Mikel.

“Ahora te pongo, salao”

Patxo.

Zazpigarren mailan “edalontzi” ez omen du inork esaten, hori euskaldunberrien kontua dela eta mundu guztiak “basoa” esaten duela. .Tabernara zoaz eta “Bi zurito eta **baso** bete ur”.

Mikel.

“Ahora te pongo, salao”

Patxo.

Bederatzigarren kurtsoan “baso bete ur” oso pedantea omen dela, euskaldunberrien kontua. “Bi zurito eta **ura**”

Mikel.

Ahora te pongo, salao.

Patxo.

Azkenean zure irakasleari esaten diozu: “Eskatu zuk, mesedez”. Irakaslea Errigoitikoa da, euskaldun peto petoa. Barrara hurbiltzen da eta: “Tssttt!! Bi zurito eta ura” Zure modu berebean!!

Mikel.

“Oraintxe bertan, motel”.

Patxo.

Orduan zu, zure onetik aterata, barrako baso eta taza guztiak besoaren kolpe bortitz batez lurrera jaurtitzen dituzu. Mostradorera salto batez igo eta tabernaria lepotik heltzen duzu. Tabernaria gorri gorri dago, itotzeko zorian. Zuk ez diozu batere kupidarik. Mundu guztia zuri begira dagoela dakizu eta horrek katxondo jartzen zaitu. Orduan esaten diozu: “Zergatik ez didazu euskeraz erantzuten, babu arraio horrek? Ni hemengo guztiak bezalakoa naiz. Eta hemendik aurrera euskeraz egitea nahi dut, koño! Eta orain entzuidazu: bi zurito eta ura. Argi dago? Eta segituan gainera!!” Tabernaria askatzen duzu. Clint Eastwood bezela zure lagunak artera bueltatzen zara. Arro zaude, eta zure lagunak ere arro daudela ikusten duzu. Orduan, barraren atzetik tabernariaren abotsa entzuten duzu.

Mikel.

“Ahora te pongo, salao!”

Patxo.

A ze moskeoa!!

Mikel.

Okerragoa gertatu zitzaidan niri. Egiunero egunero okindegian ogia euskaraz eskatu eta andreak erderaz erantzuten zidan. Beti beti. Egun batean ezin izan nuen gehiago, eta andreak berreun peztako barra integrala ahotik sartu nion esanez: “Neuk ere euskeraz hitz egiteko eskubidea daukat!! Zergatik ez didazu euskeraz erantzuten?” Andreak barra osoa irentsi zuenean erantzun zidan: “P-o-r... porque no sé euskera, coño!!!”

Patxo.

Euskaldun berrien ajeak.

Mikel.

Euskaldunberritasuna gauza kurioa da, ze zuek entzun al diozue inori esaten “Ni euskaldunberria nintzenean...” Edo “Hori euskaldunberria izan zen aspaldi batean...” Ez, ez... Sekula santan. Bizitza guztirako da. “Beltza ala zuria izatea bezalakoa da” esango du baten batek. Ba ez, ze hori ere aldatu daiteke. Hor duzue Michael Jackson, esatebaterako. Behin Harley Davison bat erosi nuen, Izugarri polita. Eta trajea? Narruzkoa. Estreinatu nuen egunean, bizkaia sakonetik sartu nintzen, herrixka batera heldu nintzen, Gizaburuaga... Han, baserri galdu bat, eta baserri atarian baserritarra, abarkak, gerrikoa, txapela, Tasio bat, peto petoa... Ikusi ninduenean altzatu eta begiak zabal zabalik begiratu zidan... Ez zen harritzekoa, motor horretan, nire narruzko traje eta nire kasko integralarekin extraterrestre bat nintzen han. Eta orduan olentzero horrek esan zuen: “Aiba dio, euskaldunberri bat”!! A ze moskeoa!!!

Patxo.

Tira, kankak dioen moduan, "Eulixa najak eta drogak nahi dittut AEKn!" Eulixa najak eta drogak nahi dittut AEKn!"

Mikel.

Hara, hori da AEKri buruz idatzi den bertsorik borobilena.

Patxo.

Beno... guk literaturaz ez dugu ulertzen.

Mikel.

Eh, kontuz esaten duzunarekin. Ni idazlea naiz ofizioz.

Patxo.

Baina zuk ez duzu Renfen lan egiten?

Mikel.

Horrexegatik.

Patxo.

Ez dut ulertzen. Explikatu hori.

Mikel.

Ez! Bakarrik hitz egingo dut nire kazetariaren aurrean.

Patxo.

Sautrela bat egitea nahi?

Mikel.

Uste nuen ez zenidala sekula esango.

Aulkietan esertzen dira.

Patxo.

Beno, beno... Zer idatzi duzu zuk zure ibilbide literarioan?

Mikel.

Beno, testo asko dago. Esatebaterako, "Espresuki debekaturik dago martxan atearak zabaltzea, eta lehioetatik burua ateratzea"

Patxo.

Zerk bultzatu zintuen modu horretan espresatzera?

Mikel.

Ezingo nizuke azaldu. Konturatu ere ez nintzen egin. Barrutik atera zitzaidan, deblauki, beste batean "Metropolitanoaren barrutian edozein objeturen salmenta debekaturik dago" atera zitzaidan bezalaxe.

Patxo.

"Edozein objetu" esatean, zer adierazi nahi zenuen?

Mikel.

Edozein gauza.

Patxo.

Aja. Ez zenion "edozein" itzari zentzu peioratiboa ematen?

Mikel.

Eh? Ah, ez. Ah, bai. Ah, ez. Ah, bai, ez, bai, ez, bai, ez... Ez.

Patxo.

Nola kalifikatuko zenuke zure estiloa?

Mikel.

Ehhhh Underground???

Patxo.

Aja. Zergatik aukeratu zenuen metropolitanoaren generoa, eta ez nobela, poesia edo teatroa?

Mikel.

Gauza batzu, genero honen bidez baino ezin dira adierazi, eta lekuz kanpo geratuko lirateke, guztiz ulertezinak, nobela batean.

Patxo.

Adibidez?

Mikel.

"Ez galdu txartela" Nobela batean, ez... ezinezkoa da. Irakurlearen tokian ipini behar zara.

Patxo.

Hildo horretatik, aipatu behar da kritiko askok leporatu dizutela ondoko hau idatzi izana: "Bidaiarien kopurua 100: zutik larogei, eserita hoge." Bihotz bihotzez, testu hau ez al da erreakzionarioa eta karka?

Mikel.

Lehenago ere esan dizut, nik errealitatea den bezela isladatzen dut. Nik ez dut politikarik egiten.

Patxo.

Atxaganianoa, nolabait?

Mikel.

Sarionaindiano baino gehiago.

Patxo.

Kasu horretan beste lan bat aipatuko dugu, beharbada egin duzun literarioena, eta famatuena ere, bestalde, memoria guztietan dabilelako. Zure alejandrino batetaz ari naiz, non aldaketaren eternitatea isladatzen den. Hona hemen, eta buruz aipatuko dut: "Trena atek itxita abiatuko da"

Mikel.

Eta ondorengo oktosilaboa, beti ahaztu egiten dena, batek daki zergatik: "Ez galerazi ixtea". Nik horrekin zera adierazi nahi nuen, trena abiatzen ez bada, zeu ere ez zarela abiatzen. Zentzugabeko jokua da, zeinean inork ez duen irabazten.

Patxo.

(Txaloak) Beno, ba honenbestez dena esanda dagoela iruditzen zait.

Mikel.

Beno, testu gehiago daude, esatebaterako, "Ez erre"...

Patxo.

Bai, jakina, eta beste hainbeste...

Mikel.

"Irteera" "Sarrera"

Patxo.

Jakina...

Mikel.

"Komunak", "Ez eragin alarmari"...

Patxo.

Bale! A ze plasta, gizona. Jose Maria Pelman ematen duzu! Moroa bazina, Jasan deituko zinen: Jasan Ezina. Gainera, niri ez zaizkit trenak gustatzen. Ni oinez mugitzen naiz, eta presaka banoa, korrika.

Mikel.

Ah, Korrika!! Zenbat korrika ez ote dudan nik egin AEKrekin!!

Patxo.

Baita nik ere. Gogoan duzu lehenengo edizinoa?

Korrikaren petoak ipintzen dituzte.

Mikel.

Itzela izan zen. Beno... Defektu bat bilatzekotan, informazio gutxi zegoen.

Patxo.

Hori ere egia da. Azken eguna gogoan dut. Zelako giro ederra!!

(4) Korrikaren musika. "Horra euskara jalgi hadi plazara" (hurrengo testuaren gainetik)

Bilbaon bukatzen zen. Ni artean sasoi sasoi nengoen eta helmugarako kilometro bat falta zenean aurreneko tropelean nindoan. Nire inguruan faborito guztiak: Txillardegia, Atxaga, Mitxelena, Barandiaran... Ni lasai, kontrolatzen, esprinta prestatzen.

Mikel.

Itzela zara!

Patxo.

Bostehun metro falta direnean demarratu egiten dut.

Mikel.

Aupa, Patxo!

Patxo.

Orduan On Joxe Miel de Barandiaran ikusten dut nire parean, eskuez sotana goraturik, dida dida.

Mikel.

Sotanak asko engainatzen du.

Patxo.

Eta esaten dit: "Mantxoago, gazte, nik lehena iritsi behar dut eta" Nik: "Ni pa dios."

Mikel.

Horixe ba. Onenak irabazi dezala, no te jode.

Patxo.

Nik erritmoa bizkortzen dut eta gurpil bategatik lehena iristen naiz.

Patxo.

Jendea ohiuka hasten da. Nire ondoan Barandiaran ikusten dut, kamilla batean, oxigeno maskarilla batekin.

Mikel.

Adin batekin gauza batzu ezin dira egin.

(Musika bapatean mozten da).

Patxo.

Eta orduan antolatzaile bat hurbildu eta explikatzen dit ez dela lasterketa bat. Beno, ez, lehenago ostiaz josi ninduen eta gero explikatut zidan. Abisatu lehenago, ba!

Mikel.

Bai. Lehenengo korrikaren arazoa informazio faltarena zen. Nik, errekorrido osoa egin nuen, Oinatitik Bilboraino. Ez nekien erreleboka egiten zenik.

Patxo.

Informazio gutxi. Baina bestela oso ondo daude. Datorren urtean Korrikara joango zara?

Mikel.

(Batere gogorik gabe) Ba... Nik "nahi", nahi dut. Hau da... nigatik buah, bitan pentsatu gabe...

Patxo.

Nik ere, nahi... esaten dena "nahi" nahi dut... Baina badakizu atsotitzak dioena: *"Etzazu Korrika egin,okerragoa da ta."* Eta ez gara gu atsoak baino listoagoak izango...

Mikel.

"Poliki ta astiro, beti eztiro"

Patxo.

"Chi va piano va lontano"

Mikel.

"Lan lasterra, lan alferra".

Patxo.

Baina bestela... Buah... Ba al dago gauza ederragorik aste bete korrika, egunez nahiz gaez...

Mikel.

Euria, nahiz txingorra, nahiz elurra.

Patxo.

Asfalto gordinean. Oinak anpollaz beterik...

Mikel.

Eta belarri ondoan megafonoa, korrikaren kantarekin.

(5) "Bat bi hiru lau" Korrikaren kanta.

Patxo.

Ze pelmak!! Eta gainera: 1,2,3,4,5,6,8... Eta zazpi zer?

Mikel.

Euskal kantik, zer espero dezakegu! Zure euskaltegian musika erabiltzen zenuten klasean?

Patxo.

Bai. Sekulako koñazoa ematen ziguten, total ezer ez ikasteko. Esatebaterako zera kantatzen genuen; "Furra furra fandangua" Furra!! Ze euskara da hori?

Mikel.

Eta tirikitrauki? Zer esan nahi du "tirikitraukik"?

Patxo.

Eta "txiruliruli txiruliruli..." Begiratu hiztegian...

Mikel.

Eta “Glu glu glu glu, glu glu glu glu...”

Patxo.

Eta “Txipli txapla plum...”

Mikel.

“Loa loa Txun txurunberde...”

Patxo.

“Aire txun txikitun, aire txun laire...”

Mikel.

“Zantzikitin zantzikitin...”

Patxo.

Baina demasekoa, demasekoa Mikel Laboa, eh?

Biak.

Xirristi mirristi gerrenaplat olioizopak ikilisalda urrup edan edo klik, Ikimilikiliklik.

Mikel.

Joan zaitetz horrekin EGA azterketara!!

Patxo.

Eta matematiketan, zero patatero: “Zenbat gara, lau, bat, hiru, bost zazpi...” Erosi kalkuladora bat!

Mikel.

Beste hori... (Agur eginez zapiarekin) “Agur jaunak, jaunak agur, agur t´erdi...” Bai, eta agur eta laurden, hara bestea...

Patxo.

Eta beste hura: “Araban Bagare, gipuzkun bagera, ziberun bagira... Mesedez... lehenengo mailatik dakit nik “gara” esaten dela.

Mikel.

Ez... Euskal kantutegia ez da oso pedagogikoa. Zaharregia da.

Patxo.

Benoa... Exzepzioak badira. Esatebaterako, munduan klonazioa zer zen ere ez zekitenean, euskalerrian “Doli” ardiari kantatzen zioten.

Mikel.

Doli ardiari?

Patxo.

Bai, motel: “Doli gabe, Doli gabe, hiltzen niz...”

Mikel.

Bai... Hori exzepzio bat zen. Orokorrean euskal kanta oso atzeratuta daude.

Patxo.

Ni irakaslea banintz, musika plurietnikoa erabiliko nuke.

Mikel.

Nik ere. Fussion, fussion da molatzen duena.

Palmaka hasten dira.Patxok kantatu bitartean Mikelek “Ele ze grazia duzun, mi arma” eta horrelakoekin lagunduko du.

Mikel.

Egizu fimosis polit bat! Entzun laguna alaitasunaren himnoa.....

Patxo.

Ikusten ze giro polita?

Mikel.

Ai, euskara ikastea horrela balitz.

Patxo.

Errealitatea, zoritxarrez, oso desberdina da. Kontatu al diegu jada hauei gure “Lizentziatura” egunarena?

Mikel.

Ez naiz gogoratzen.

Patxo.

Memoria kaxkar hau! Tira, badaezpada ere, berriz kontatuko diegu. Imagina zazue, Aula Magna, jendez mukuru: gure amak, gure arrebak, nire nobiak, nire maitaleak, nire neskalagunak...

Mikel.

Nire emazte ohia...

Patxo.

Eta fondoan, epai mahaia...

Mikel.

Gu pozez zorutzen. Hainbeste urte pasa eta gero azkenean euskaldun bihurtuko ginen!!

(6 Off. (lau zati dauzka))

Jaun andreak, segidan, Lizentziatura Zeremoniari hasiera emango diogu. Datozela euskaldungaiak.

Patxo eta Mikelek lizenziatuen boneteak eta togak jazten dituzte. Turutekin “Gaudeamus Igitur” kantatzen dute.

Kurrikuluma mesedez?

Biak.

Bai... lehen urratsa, seigarrena, hamargarrena.... Hobekuntza bat, bi hiru la bost eta sei. Mintza praktika... EGA. Perfil guztiak. Hemen makrame kurtsillo bat... (Ad lib)

Off.

Nahikoa. NANA, mesedez...

Biak.

Nana? (Kantatzen hasten dira) “Haurtxo txikia sehaskan dago...”

Off.

Nortasun agiri nazionala! NANA! Sehaska kanta ez!

Mikel.

Ah!! Hemen dago.

Karneta erakusten dio. Patxok ez du aurkitzen.

Patxo.

Ze arraio...(Oso urduri) Nik zera uste nuen...(Negarrez) Ez dut aurkitzen, Mikel, baina jode, ze mazizo nagoen!

Mikel.

Patxo, berrogei urte pikutara eta zu brometan.

Patxo.

Badakit... Baina... Oh!! Hemen!! Hemen dago! (Karneta erakusten dio)

(7) Off. (bi zati dauzka)

Ondo da. Gaur, euskal irakaslego eta ikaslegoaren aurrean, euskaldun peto eta jator izendatzen zaituztet. Eta hala egiazta dadin sinatzen dut Euskaltzaindiak eman didan agintearekin. Zorionak, benetan.

Biak.

Eskerrik asko. Eskerrik asko.

Txapelak jazten dituzte. Patxok turuta jotzen du.

Mikel.

(Offari) Milesker!!! Amatxu!! Euskalduna naiz!!! Eskerrik asko denoi. Agur!! Elkar ikusiko diogu!!

Musika eten egiten da. Patxo hutsuneaz konturatu da. Mikel harrituta dago.

Mikel.

Zer gertatzen da? Patxo... Zergatik ixildu da musika? Zergatik begiratzen didazu horrela?

Patxo.

“Elkar ikusiko diogu” esan duzu.

Mikel.

Nola? Ez... Elkar ikusiko dugu. Elkar ikusiko dugu esan dut. Ezta, Patxo? Esaiozu “Elkar ikusiko dugu” esan dudala.

Off.

Kendu txapela, mesedez. Segi ikasten, eta ea datorren urtean suerte hobea duzun.

Patxo.

(Gora begira) Eh... Egon une batez... ez duzu eskubiderik. Zuk ez dakizu zer den berrogei urtez ikasten egon... (Okerraz konturatzen da) egotea... (urduri jartzen da) egotetik... egotera, egoteaz, agoteagatik, egotearren... Egote...absolvo, in nomine patri...

Oso digno, txapela kentzen du.

Patxo.

Ala tori... Goazen, Mikel.

Irteten hasten dira. Baina bueltatzen dira.

Patxo.

Eta jakin zazue: sekulako mesedea egin digute, bai horixe. Nik euskera ikasten puta madre pasatzen dut. Beno, hainbeste urte pasa ta gero, jada ez dakit besterik egiten. “AEKdiktoa” naiz.

Mikel.

Ni “*Euskaltegidependientea*”.

Patxo.

“*Baldintzómanoa*”

Mikel.

“*Subjuntibópata*”

Patxo.

Hala, goazen, hurrengo kurtsillorako matrikula egitera.

Mikel.

Bai. Goazen korrika.

Patxo.

Tsstt! Korrika ni pa dios. Astiro astiro.

Mikel.

Joan ginen, bai, hurrengo kurtsilloan matrikula egitera.

Patxo.

Datorren hastean hasiko gara. Beno, gure errebindikzioak kontutan hartzen badira.

Mikel.

Bai, hain zuzen hasieran irakurri dizuegun Manifiestoan agertzen direnak.

Patxo.

Manifiestoa irakurri dugu jada?

Mikel.

Ah, ba ez naiz gogoratzen.

Patxo.

Memoria kaxkar hau... Badaezpada ere berriz irakurriko dugu.

Pankarta hartu eta plantatzen dute eskenatokian. “EUSKARA SENCILLOAREN MANIFIESTOA” Beren tokian jartzen dira eta melodia bat jotzen dute turutekin, homno bat balitz bezala. Bukatzean...

Patxo.

Guk, Euskaltzaindia Berriko Gramatika batzordeak, ikasleen egoera penagarriaren aurrean, aldarrikatzen dugu.

Mikel.

Ikaslearen bizitza laburra dela. Euskaldunizazioa, berriz, luzeegia.

Patxo.

Ikasle baten bizitza esperantza hirurogei urtekoa da. Euskera ikasketa prozesu osoa ehun eta hogeitau urtekoa. Beraz, ikasle batek bi bizitza behar ditu euskalduntzeko.

Mikel.

Gauzak horrela, ikasleak bi aukera besterik ez ditu: reenkarzioa edo klonazioa.

Patxo.

Egoera hau konpontzeko, Euskaltzaindia berriak EUSKERA SENCILLOAREN MANIFIESTOA aldarrikatzen du.

Mikel.

Lehenengo puntua. Bokabularioa: Munduko hitz guztiak anai, berdin eta libreak dira, eta eskubide berdinak dituzte. Esanahia kontextuagatik ulertuko da.

Patxo.

Por lo tanto, tout le mondeko parole guztiak usatzeko derechoa daukagu, eta no one ez da marginatuko, sexo, religione, politique, stronhausen, osotogari, lumumba edo idiomagatik.

Mikel.

Bigarren puntua. Pronunziazioa: Tz, Ts eta Tx berdinak dira legearen aurrean. Esanahia kontestuagatik ulertuko da. Esatebaterako: Berorik eza:

Patxo.

(Hotzez dardarka) Ufff ze hochა!!

Mikel.

Zarata.

Patxo.

(Belarriak estaliz) Uff, ze hochა!!

Mikel.

Eta kantatzeko orduan ere...

Patxo.

“Acho acho acho acho il ziren hamar acho”. (...)

Mikel.

Hirugarren puntua. Deklinabidea. Hitz guztiek libre bizitzeko eskubidea dutenez, deklinazioaren uztarritik askatuko ditugu. Esanahia kontestuagatik ulertuko da. Esatebaterako. Etxeak

Patxo.

(“Asko” mimatuz) Etxe. Etxetik. (...) Etxera. (...) Etxeruntz (...) Etxean. (...)

Mikelek esan ahala, Patxok “Etxe” esan eta “kontextualizatuko” du.

Mikel.

Laugarren eta azken puntua. Aditza denboraren uztarriaz libratzeko, konjugazioa aboliturik geratuko da. Esanahia kontestuagatik ulertuko da. Esatebaterako. “Ikusten zaitut”

Patxo.

(Mimikaz lagundurik) Ni zu ikusi.

Mikel.

Ikusi zintudan (...) Ikusiko zaitut. (...) Ikusiko bazintu, agurtuko nizuke. (...)

Patxo.

(...) Beno... Kontestuagatik ulertuko da.

Mikel.

Boskarren eta azken puntua: Lege berri hauek datorren ikasturtean AEKko klase guztietan ezartzea exijitzen dugu. Bilbaon 2002ko Maiatzak hogeitabian. Euskaltzaindia hil da. Gora Euskaltzaindia!!

Biak.

Gora!!

Patxo.

Fuera bokabulario eta pronuntziazioa!!

Biak.

Fuera!!

Patxo.

Fuera deklinazioa eta konjugazioa!!

Biak.

Fuera!

Mikel.

Gora euskera sencilloa!

Biak.

Gora!!

Pankartarekin alde egiten dute.

(8) Musika: “Eulixa najak”